

## OME, 10 urte ospitaleetan esku higienea sustatzen

OSPITALEAN DAUDEN ehun gaixotatik zazpi infekzio bat hartzen dute mikroorganismoen transmisioagatik, ospitaleko langileek beren eskuakin ukitu ondoren. Zifra hori beldurgarria iruditzen bazaigu ere, kontuak ez dira hor amaitzen: infektatutakoen portzentajea %30era irits daiteke medikuntza intentsiboetako unitateetan egoerarik kritikoenean dauden gaixoengan.

Duela hamar urtetik hona, Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) gai horri buruzko kanpaina egiten du urtero, *Arreta garbia, arreta seguruagoa* programaren barruan. Kanpainaren erdigunea Eskuetako Higienaren Munduko Eguna izaten da, maiatzaren 5ean. Aurtengo leloa *Save lives: clean your hands* (Babestu bizitzak: garbitu itzazu eskuak) izan da.

Kanpainaren hamargarren urteurrena beten honetan, eskuak garbitzeak osasunaren eremuan daukan garrantzia azaltzen duten hamar arrazoi nagusiak gogorarazi ditu OMEk. Horien artean nabarmendu behar da milioika bizitza salbatu direla keinu sinple horri esker; osasun-sistemen segurtasuna azpimarratzen duen kalitate-adierazlea dela; eskuen higie egokiak infekzioak saihestu ditzakeela, eta gaixoen osasunari eta osasun-arretako langileei eraginda-



ko kalteak prebenitzeko kostua hamar dolarren azpitik dagoela.

### Erronka politiko eta soziala

Egia da osasun arazoak, esate baterako arreta sanitarioari lotutako infekzioak –ASLI akronimoarekin ezagutzen direnak–, ez direla hain erraz azaleratzen, baina gertatu gertatzen dira, eta horregatik konpondu beharreko erronka politiko eta sozialtzat jotzen ditu Osasunaren

Munduko Erakundeak. Dena den, beste hainbat kasutan gerta daitekeenaren alderantziz, ez da beti diru-kontua, teknologiarik eraginkorrenak oso merkeak baitira sarritan: horrela, alkoholarekin eraturako disoluzio desinfektatzaileak ASLIak eta horrekin batera baita milioika heriotza ere prebeni ditzake urtero. Gezurra badirudi ere, botilaren kostua hiru dolarrekoa besterik ez da.

“Osasun-langileen laneko fluxuan eskuetako higienarako une edo momentu espezifikoak txertatzeak minuturo, orduro, egunero gauzak behar bezala egitea errazten du”, OMEren arabera. Baina horrekin batera, infekzioen prebentzioa da osasun-sistemen indar-gune nagusietakoa. Eskuen higieak izan behar du beti gaixoari osasun-eremuan egindako esku-hartze guztien

oinarria, dela pazienteari gailu mediko inbaditzaile bat ezartzea –pauzo-markagailu bat edo belarri barruko inplante bat–, dela zauri kirurgiko bat garbitzea, dela injekzio bat jartzea bezain sinplea dirudien ekintza.

OME erakundeak esku-higienaren inguruan martxan jarri duen kanpaina sare sozialetan ere ari da zabaltzen, #handhygiene traolaren bidez. ■

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

**iametza**

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16